

2 GIZARTE LANGILE PLAZA BETETZEKO DEIALDIA

PRAKTIKALDIAN 2 IZENDAPEN ETA LANPOLTSA ONARTZEKO ERABAKIAREN JAKINARAZPENA

Begarako Udalak bi gizarte-langile kontratatzeko edo izendatzeko egindako ohiko deialdiaren oinarriak onartu zituen 2021eko otsailaren 1ean.

Halaber deialdi berean behin behineko izendapen beharrei erantzuteko lanpoltsa osatuko zela jaso zen.

Epaimahaiak 2022ko urtarrilaren 18an egindako bileran erabaki du prozesu osoan izandako emaitzak eta erreklamazio eta errekursoaren inguruan hartu diren erabakiei emandako erantzunak kontuan izanda prozesuko puntuazio orokor hauek onartzea.

NAN	TEORIKOA	PRAKTIKOA	MERITUAK	PSIKOTEKNIKOA	GUZTIRA
72XXX707P	18,29	25	0	32,44	75,73
725XXX74G	19,52	27,3	0	34,44	81,26
725XXX52N	18,1	26,1	2,3	29,5	76
725XXX33P	20	25,7	0,6	25,38	71,68
443XXX92V	23,24	33,15	7,6	25,19	89,18
44XXX594W	20,86	35,8	6,35	30,63	93,64

Halaber proposatu du prozesu osoan puntuazio altuena izan duten bi izangaiak, gizarte langile 2 plaza betetzeko, funtzionario praktikaldian izendatzea honako hauek izanik:

- 443XXX92V
- 44XXX594W

Halaber proposatu du, aldi baterako gizarte langile premiei erantzuteko lanpoltsa osatzea, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, honako hau izanik:

NAN	GUZTIRA
725XXX74G	81,26
725XXX52N	76
72XXX707P	75,73
725XXX33P	71,68

Alkateak 2022ko urtarrilaren 27an emandako dekretu bidez epaimahaiak egindako goian jasotako ebazpen proposamenak onartu dituela jakinarazten da argitalpen honen bidez.

Ebazpenaren aurkako bideak

*Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea izanik, jakinarazpen hau argitara eman den hurrengo egunetik hasita.**

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

**Jakinarazpen hau 2022ko urtarrilaren 28an argitara eman da udaleko iragarki taulan eta Bergarako udalaren web orrian.*

Bergaran, 2022ko urtarrilaren 28an

Epaimahaiko idazkaria

